



KULTURA PROGRAMAZIOA
2018 BERGARA


MUSIKA
DANTZA
ANTZERKIA
HAURRENTZAT EMANALDIAK

Urria - Abendua
Octubre - Diciembre




S E M I N A R I X O A


PLANOA / PLANO



C zona



B zona



A zona

ESZENATOKIA

Sarrerak / Entradas

Seminarixoko emanaldietako sarrerak eskuratzeko bi bide daude:


- Seminarixoko txarteldegian ostegunero 18:00etatik 20:00etara.
- ticket.kutxabank.es webgunearen bitartez.

Hileko lehenengo ostegunean jarriko dira, hurrengo hilabeteko sarrerak salgai.

Las entradas para las actuaciones de Seminarixoa se podrán adquirir de dos maneras:

- en la taquilla de Seminarixoa todos los jueves entre las 18:00 y las 20:00.
- en la web ticket.kutxabank.es

A partir del primer jueves de cada semana se pondrán en venta las entradas para el mes siguiente.



Seminarixoa, kulturaren errekaren etorria

Tradizioa eta modernitatea, ondarea eta gizartea, iragana eta etorkizuna, zaindu eta berreraiki, historia jaso eta egin, ikasi eta zabaldu, hartu eta eman... kulturaz busti eta erein, kimu berriak hazi daitezzen. Horrek guztiak batzen ditu Bergararen iragana, kulturaren errekasto garrantzitsuen bitartez, etorkizunarekin lotzen duen agertoki berriak, Bergarako herriak merezitakoak.

Seminarixoa, nuevo manantial de cultura

Tradición y modernidad, arte y utilidad, raíces y futuro, cuidar y reconstruir, recoger y hacer, aprender y difundir, tomar y dar... mojarnos de cultura y sembrar, para que crezcan los nuevos retoños. Este nuevo espacio, que fluye a través de la cultura entre el pasado de la localidad y su futuro, une a todos ellos en una infraestructura merecida por el pueblo de Bergara.



KULTURA PROGRAMAZIOA 2018 BERGARA

Musika / Música

Urriak 6	19:00	Organo kontzertua	Santa Marinar	Doan
Urriak 7	13:00	Begarako Txistulari Banda	Seminarixoan	Doan
Urriak 17	19:30	Abesbatzak	Seminarixoan	Doan
Urriak 20	19:00	Organo kontzertua	Santa Marinar	Doan
Urriak 21	12:30	Musika Bandaren Kontzertua	Frontoian	Doan
Urriak 28	12:30	Ekidazu Abesbatza	Seminarixoan	Doan
Azaroak 9	22:00	Izaro	Seminarixoan	8,00 €
Azaroak 17	19:00	Tenpora	Seminarixoan	8,00 €
Azaroak 23	20:00	Bittor Giral & Alejandro Mendoza	Seminarixoan	Doan
Abenduak 2	19:00	Lurpekariak	Seminarixoan	8,00 €
Abenduak 15	19:00	Mirian Moñux & Leire Ugarte	Seminarixoan	Doan
Abenduak 21	18:30	Musika Eskolako Gabon Kontzertua	Frontoian	2,00 €/4,00 €
Abenduak 22	20:30	Gabon Kontzertua	Frontoian	8,00 €
Abenduak 23	18:00	Horra, Horra! Gabon Kontzertua	Frontoian	3,00 €

Haur ikuskizuna / Espectáculo infantil

Urriak 14	12:00	Kaput	Seminarixoan	4,00 €
Azaroak 4	18:00	Drag-e	Seminarixoan	4,00 €
Abenduak 26	17:00	Lau	Seminarixoan	4,00 €
Abenduak 27	17:00	Kibubu	Seminarixoan	4,00 €
Abenduak 28	17:00	Katillukadak	Seminarixoan	4,00 €

Antzerkia / Teatro

Urriak 16	19:00	'Madonna'	Seminarixoan	Doan
Urriak 25	17:00	Helduen Txontxongilo Mostra	Seminarixoan	8,00 €
Urriak 28	20:00	Helduen Txontxongilo mostra	Seminarixoan	8,00 €
Azaroak 16	22:00	Punkowsky	Seminarixoan	8,00 €
Abenduak 1	19:00	Ergelak	Seminarixoan	8,00 €

Dantza / Danza

Azaroak 25	12:00	Gazteen dantza solte txapelketa	Seminarixoan	Doan
------------	-------	---------------------------------	--------------	------

6 **Larunbata** **Sábado**
20 **Igandea** **Domingo**

Urria **Octubre**
 19:00

Musika / Música

Sarrera / Entrada: doan

Santa Marina elizan



Urriak 6

STANISLAV SÛRIN organista

HELMUT HAUSKELLER flauta de pan

Urriak 20

LORETO ARAMENDI organista

ARV-VOCEM abesbatza

PEDRO MIGUEL AGUINAGA biolonista

Organo Erromantikoaren Nazioarteko XIX. Zikloa

Organo Erromantikoaren nazioarteko XIX. zikloa ospatuko da aurten. Emanaldiak Azkoitian, Loiolan eta Bergaran izaten dira. Guztira bederatzi emanaldi izango dira, eta horietatik bi Bergaran egingo dira. Urriaren 6an Stanislav Surin organo jotzaileak egingo du kontzertua, ogi-flauta jotzaile Helmut Hauskellerrekin batera. Eta urriaren 20an Loreto Aramendi organo jotzailearen txanda izango da; berarekin arituko dira Art Vocem abesbatza eta Pedro Miguel Aginaga biolin jotzailea.

Este año se celebrará el XIX Ciclo Internacional de Órgano Romántico. Las actuaciones se desarrollarán en Azkoitia, Loiola y Bergara. En total serán nueve conciertos, y se podrá disfrutar de dos de ellos en Bergara. El 6 de octubre actuará el organista Stanislav Surin, acompañado de Helmut Hauskeller con la flauta de pan. Y el 20 de octubre será la cita de la organista Loreto Aramendi, acompañada del coro Art Vocem y del violinista Pedro Miguel Aginaga.

Musika / Música

Sarrera / Entrada: doan




Bergarako Txistulari Banda

Jose Miguel Laskurain zuzendari duen Bergarako Txistulari Banda oso sasoi onean dago. Herriko ekitaldi garrantzitsuenetan, auzoetan... non-nahi jartzen du Txistulari Bandak bere alea. Eta Seminarixoan eskaintzeko kontzertu berezia prestatu du, oso anitza. Hala, Txomin Agirregomezkortaren piezak interpretatuko dituzte, baita J. Inazio Ansorenarenak, Sabin Bikandirenak eta Jose Olaizolarenak, besteak beste. Horien artean, arin-arinak, fandangoak, habanerak, pasodobleak eta beste.

Begarako Txistulari Banda dirigida por Jose Miguel Laskurain está en muy buena forma. Pone lo mejor de sí en todo tipo de acontecimientos, festividades locales. La Banda de Txistularis ha diseñado un concierto especial para Seminarixoa, muy variado. Interpretarán piezas de Txomin Agirregomezkorta, J. Inazio Ansorena, Sabin Bikandi y Jose Olaizola, entre otros. Entre ellos, arin—arin, fandango, habaneras, pasodobles y demás.

14**Urria
Igandea****Octubre
Domingo****12:00****Haur antzerkia/ Teatro infantil**

Sarrera / Entrada: 4€



KAPUT

Ikuskizun honek bi zororen eta auto baten ihesaldi geldia kontatzen du; bi bidelagun havei babesa emango diegu apur baten, babesa, lasaitasuna eta itxaropena. 'Kaput' ikuskizunak barrearen eta baikortasunaren bitartez gerren drama unibertsala eta horien zeharkako eraginak ekartzen ditu gogora. Hala, 'Kaput' komedia hunkigarri, urratzaile eta zentzugabekoa da nolabait esanda; dibertitzeko eta publiko mota guztiak hunkitzeko gai den hitzik gabeko bidaia.

Kaput nos cuenta la huida inmóvil de dos chiflados y un coche, dos compañeros de viaje que acogeremos en nuestro refugio para darles un rato de calma y esperanza. 'Kaput' es una comedia emotiva, abrasiva y disparatada que nos acerca al drama universal de las guerras y sus efectos colaterales desde la risa y el optimismo. Un viaje sin palabras capaz de divertir y conmover a todos los públicos.

Antzerkia / Teatro

San Joxepe elkartearen Aste kulturala.
Semana Cultural de la Sociedad San Joxepe.
Sarrera / Entrada: doan

Oroimenak
antzerki taldea



'Madonna'

Gipuzkoako ONCEren baitan luzaroan arte eszeniko eta aisialdi programa bat landu zuten. Dinamika horretan egindako lanaren ondorioz, 2003an Oroimenak Antzerki Taldea sortu zen. Ordurako kideek eskarmentu handia zuten antzerkiaren sorkuntzan, produkzioan eta interpretazioan. Etapa desberdinak bizi izan ditu antzerki taldeak eta dagoeneko 30 aktoretik gora pasa dira –horietatik gehienak zailtasun fisikoren bat dutenak eta ONCEko kideak direnak.

En la ONCE de Gipuzkoa llevaron a cabo un programa muy duradero de artes escénicas y tiempo libre. Gracias a esa dinámica, en 2003 nació el grupo de teatro Oroimenak. Para esa fecha, sus miembros contaban con mucha experiencia en la creación, producción e interpretación de teatro. El grupo de teatro ha vivido diferentes etapas y hasta la fecha ya han pasado más de 30 actores y actrices –la mayoría con algún tipo de dificultad física y miembros de la ONCE-.

Musika / Música

San Joxepe elkartearen Aste kulturala.
Semana Cultural de la Sociedad San Joxepe
Sarrera / Entrada: doan

San Joxepe elkarteko
eta Aretxabaletako
abesbatzak



San Joxepe eta Aretxabaletako Jubilatuen Abesbatzak

Bergarako San Joxepe jubilatuen elkarteak antolatutako Aste Kulturalaren barruan bi abesbatza beteranoren kontzertua egingo da Seminarixoan. Batetik, anfitrioiak, Bergarako jubilatuen abesbatzak. Eta, bestetik, aurtengo gonbidatu gisa, Aretxabaletako jubilatuen abesbatza. Emanaldi bizi eta aberats honetan abesbatza bakoitzak lau piezak interpretatuko ditu, guztiak euskaraz, eta horietan habanerak, euskal kantak eta beste entzun ahal izango dira.

Dentro de la Semana Cultural organizada por la asociación de jubilados San Joxepe se celebrará un concierto de dos corales veteranas en Seminarixoa. Por una parte, la coral anfitriona, correspondiente a los jubilados de Bergara. Y, por otra, como invitada la coral de los jubilados de Aretxabaleta. En esta doble actuación programada cada coral interpretará cuatro piezas, todas ellas en euskera, dónde se intercalarán habaneras, canciones vascas y otras.

21**Urria
Igandea****Octubre
Domingo****12:30****Musika / Música**

Sarrera / Entrada: doan



Bergarako Musika Banda

Ezer gutxi berria esan daiteke Bergarako Musika Bandari buruz hitz egiterakoan. Bergara sortu zenean jada bazegoen ia; beti egon da hor, mende luzea dauka bizkar gainean. Baina, hala ere, inoiz baino sasoi onean dago. Izan ere, zuzendariek belaunaldiz belaunaldi eutsi diote Bergarako tradizioari eta modernitateari lekua egiten; azken urteotan Alfredo González Chirlaquek. Eta gauza bera egin dute bergararrek musika maitatuz eta interpretatuz. Emanaldi esanguratsua eskainiko du Bergarako Musika Bandak udal pilotalekuan.

Poco nuevo se puede decir sobre la Banda de Música de Bergara. Cuando se fundó Bergara casi estaba ya; siempre ha estado ahí, cuenta con un largo siglo de vida. Aún así, está en su mejor momento. Sus directores han sabido trabajar para aunar tradición y modernidad; durante los últimos años Alfredo González Chirlaque. Y de la misma manera han actuado tantos y tantas bergareses y bergaresas amando la música e interpretándola. La Banda de Música de Bergara ofrecerá un concierto singular.

25 Osteguna **Jueves**
28 Igandea **Domingo**

Urria **Octubre**
20:00

Txotxongiloak / Títeres

Sarrera / Entrada: 8€

Onírica
Mecánica.



Helduen Nazioarteko Txotxongilo XIV. Mostra

Urteroko hitzordua da Taun Taun Teatro taldeak, Udalaren laguntzarekin, antolatzen duen Mostra. Herrian egingo diren ikuskizunen artean, Seminarixoa bi ikuskizun egingo dira: Londresko 2Theatre konpainiaren 'Boris & Ingrid'; eta Murtziako Onírica Mecánica konpainiaren 'Alicia y las ciudades invisibles'.

La Mostra Internacional de Títeres para adultos organizada por Taun Taun Teatro, con la ayuda del Ayuntamiento, es ya un clásico bianual. De entre todas las actuaciones programadas, dos tendrán lugar en Seminarixoa: 'Boris & Ingrid' de la compañía londinense 2Theatre; y 'Alicia y las ciudades invisibles' de la compañía de Murcia Onírica Mecánica.

Musika / Música

Sarrera / Entrada: doan



Ekidazu Abesbatza

Aritzeta abesbatzak gonbidatuta, Lezamako Ekidazu abesbatzaren bisita izango da Seminarixoan. 2001ean jaiotako abesbatza hau 25 ahots mistoz osatuta dago eta zuzendaria Iratxe Ispizua da. Abesbatza gaztea bada ere, curriculum lodituz doa uneoro. Hala, herriko ekitaldi ugarietan parte hartzeaz gain, elkartruke kantatu ugari egin ditu Euskal Herriko, Kataluniako, Galiziako zein Terveleko abesbatzekin. Horrez gain, Unescoren egoitzan ere aritua da kantuan.

Invitada por la coral Aritzeta, el escenario de Seminarixoa acogerá a la coral Ekidazu de Lezama. Esta coral nacida en 2001 está formada por 25 voces mixtas y su directora es Iratxe Ispizua. A pesar de ser un coro joven, su curriculum va creciendo imparable. De esta manera, además de numerosos conciertos, han realizado numerosos intercambios con corales de Euskal Herria, Cataluña, Galicia y Teruel. Además, ofrecieron un concierto en la sede de la Unesco.

Haurrentzat antzerkia / Teatro infantil

Sarrera / Entrada: 4€

LOGELA MULTIMEDIA



Drag-e

'Uraren bila'

'Drag-e uraren bila' Logela Multimedia talde aitzindariaren antzezlan multimedia da. 2800 urtean Lur planetan ez da ur arrastorik antzematzen. Baina oraindik bada itxaropen izpi bat: Drag-e robotak eta bere lagunek ura lortzeko misioa abian jarri dute. Abentura honek arrakasta izan dezan natura ulertu eta maitatu beharko dute, eta bidai hau harrigarria izango da. Ikuskizun multimedia honek antzerkia, dantza, bideo-animazioa, interakzioa, musika eta biltzen ditu.

'Drag-e uraren bila' es una obra teatral multimedia creada por la compañía innovadora Logela Multimedia. En el año 2800 no hay rastro de agua en el planeta Tierra. Pero aún queda una pequeña esperanza: el robot Drag-e y sus amigos han puesto en marcha una misión para conseguir agua. Esta misión tendrá éxito si entienden y aman a la naturaleza. Este trabajo aún a teatro, danza, vídeo-animación, interacción y música.

Musika / Música

Sarrera / Entrada: 8€




Izaro

Mallabiako gazte honek leku nabarmen bat aurkitu du Euskal Herriko musikazale askoren bihotzetan. 2014an hasi zuen bere musika ibilbidea ia oharkabea eta jasotako harrera beroak lagunduta 'öm' diskoa grabatu zuen. Ordutik ez du etenik izan, entzuleak bere kantu zein hitzekin zeharo identifikatzen dira, eta laukotea osatuta non-nahi areto guztiak betetzen ditu sentsibiltate handiko kantu biluziak entzuteko. Orain 'Eason' izeneko bigarren disko luzearen aurkezpen kontzertuak egiten dihardu. Bihotzetik sortutako piezak talde sendo batekin borobiltzen ditu.

Esta joven de Mallabia se ha alojado en los corazones de muchos y muchas aficionadas a la música de Euskal Herria. Comenzó su andadura musical tímidamente en 2014 y casi sin darse cuenta recibió una muy buena acogida que lo empujó a grabar 'öm'. Desde entonces no ha parado, su público se identifica con sus letras y su música, y ya en cuarteto llena todos los recintos para escuchar sus temas desnudos llenos de sensibilidad. Ahora se encuentra presentando su segundo disco 'Eason'. Estas piezas compuestas desde el corazón están arropadas por una firme banda.

Antzerkia / Teatro

Sarrera / Entrada: 8€



Punkowsky

'Punkowski' Bergarako Aitor Borobia aktorearen historia da. Bera da antzezlan honen egile, ekoizle eta aktore nagusia. Behin paperean idatzita, bere historia agertokietara eramatea erabaki zuen, eta beste lau aktore batu zituen proiektuan. Punketik badu obra honek, Bukowskytik ere, eta baita hausnarketatik eta lotsagabetik ere.

Aktore ibilbidea kanpoan egin duen Bergarako aktore hau bere esentzia puruenean herrian ikusteko aukera gutxienetakoa izango da hau, barru-barrutik egindako lan honetan.

'Punkowski' es la historia del actor de Bergara Aitor Borobia. Él es el autor, productor y actor principal de esta obra teatral. Una vez la escribió en el papel, decidió llevar esta historia a los escenarios, y arrastró a cuatro actores consigo. Esta obra tiene mucho de punk y también de Bukowsky, pero también de reflexión y de poca vergüenza.

Esta es una de las pocas oportunidades de ver a este actor bergarés que ha desarrollado su recorrido fuera de aquí en su esencia más pura, en esta obra escrita desde dentro.

Musika / Música

Sarrera / Entrada: 8€



Tenpora

Sorlekua Tolosan duen boskotea eskarmentu handiko musikariz osatuta dago, folkean, pop-ean, rock-ean eta jazz-ean bereziki aritutakoak. 2015an taldeak 'Mundu berria' lan luzea kaleratu zuen eta iaz 'Itzulika' izeneko bigarren diskoa. Oraingoan beti hain presente izan ohi duten pop eta jazz doinuetatik harago elektronika eta rock progresiboaren eremuak ere landu dituzte. Hitzak idazterakoan, gainera, Karlos Linazasoro eta Harkaitz Cano izan dituzte bidelagun.

Este quinteto que tiene su base de operaciones en Tolosa está formado por músicos de gran veteranía, curtidos principalmente en los ámbitos del folk, el pop, el rock y el jazz. En 2015 publicaron su primer trabajo largo ('Mundo berria') y este pasado año un segundo disco llamado 'Itzulika'. En este nuevo trabajo han elaborado piezas cargadas de pop y jazz, pero también se han aventurado en los terrenos de la electrónica y el rock progresivo. A la hora de escribir las letras, han contado con la colaboración de plumas como Karlos Linazasoro y Harkaitz Cano.

Musika / Música

Sarrera / Entrada: doan



Bittor Giral eta Alejandro Mendoza

Bittor Giral eta Alejandro Mendoza Bergarako bi tronboi jotzaile gazte dira. Giral Bergarako Musika Eskolan ibilia da eta gaur egun Donostiako Conservatorio Escuderon dago tronboiaren erdi maila ikasten. Giral Bergarako Musika Bandako eta Bergarako Orkestrako kide da. Mendoza, aldiz, Giralen ikaskide da Donostian, eta Bergarako Orkestran ere dihardu. Duet klasiko eta jazz kontzertua egingo dute. Musika Eskolako beste ikasle batzuk ere parte hartuko dute.

Bittor Giral y Alejandro Mendoza son dos jóvenes trombonistas de Bergara. Giral ha estudiado en Bergarako Musika Eskola y a día de hoy está matriculado en el grado medio en el Conservatorio Escudero de Donostia. Giral es miembro de Bergarako Musika Banda y de la Orquesta de Bergara. Mendoza es compañero de Giral en el Conservatorio Escudero y miembro de la Orquesta de Bergara. Interpretarán duet clásicos con unas pinceladas de jazz. También participarán alumnos de Bergarako Musika Eskola.

25**Azaroa
Asteazkena****Noviembre
Miércoles****12:00****Dantza / Danza**

Sarrera / Entrada: doan

Antolatzailea:
Bergarako Musika Eskola.

Bikote gazteen dantza solte txapelketa

Bergara ia betidanik izan da dantzarako plaza eta azken urteotan, baita ere, dantzarien harrobi. Zaletasuna egon badago, eta hori haziz doa, gainera. Horregatik, gero eta txapelketa garrantzitsu gehiago antolatu ohi dira gurean. Hala, azaro bukaeran gazteen artean dantza promesak direnekin gozatu ahal izango dugu Seminarixoa, Euskal Herriko Gazteen dantza txapelketan.

Bergara es casi desde siempre plaza para la danza y estos últimos años, también, cantera de dantzaris. Existe afición por esta disciplina y ésta va en aumento además. Por ello, cada vez se organizan más campeonatos y muestras en Bergara. De esta manera, a finales de noviembre podremos disfrutar con las promesas juveniles de la danza en el campeonato de Euskal Herria de danza de jóvenes.

Antzerkia / Teatro

Sarrera / Entrada: 8€



Ergelak

Sara Cozar eta Joseba Apaolaza protagonista dituen antzezlan honek umorea eta misterioa uztartzen ditu. Froga psikologiko batzuetara aurkeztuko da protagonista; dituen arazo ekonomikoak konpontzeko diru erraza irabazteko asmoz. Baina tranpa eta iruzurra aurkituko ditu ordainetan. Psikologa misterioz bategaldera sorta tranpatia egingo dio protagonista tontolapikoa urduritasuna jota utzi arte. Halabeharrez, honek bere onenak eman beharko ditu zoritxarrezko amaierarik gerta ez dadin.

Esta obra protagonizada por Sara Cozar y Joseba Apaolaza aúna humor y misterio. El protagonista se presentará a unas pruebas psicológicas para solucionar los problemas económicos que arrastra, pero se encontrará atrapado en un gran engaño. Una misteriosa psicóloga le formulará una serie de preguntas para tenderle una trampa de la que no sabrá cómo salir. Por ello, tendrá que pasarlas canutas para poder salir de esta y no caer en el peor desenlace.

2**Abendua
Igandea****Diciembre
Domingo****19:00**

Musika Jazz / Música Jazz

Sarrera / Entrada: 8€



Lurpekariak

Seikote berezi hau honako musikariek osatzen dute: Ion Celestino, Ander García, Javier Callén, Daniel Lizarraga eta Israel Tubilleja; eta hauek borobiltzen dute Nerea Erbiti abeslariak lortutakoa. Hauen eskaintza euskal musika tradizionalan dago oinarrituta baina hortik harago doa, musikarien ezagutza eta inprobisazio gaitasunak lagunduta estilo muga asko gaingituz. Izan ere, hirukote bikoitza izateak errazten du ehundura aberats eta soinu giro berriak lortzea.

Este original sexteto está formado por los músicos Ion Celestino, Ander García, Javier Callén, Daniel Lizarraga e Israel Tubilleja, que envuelven con sus instrumentos la voz de Nerea Erbiti. Su oferta musical parte de la música tradicional vasca y se transforma en algo más amplio y versátil, que ayudado por la improvisación deriva en distintas direcciones sonoras. De hecho, el doble trío de músicos propicia la creación de ricas texturas y espacios sonoros.

Musika / Música

Sarrera / Entrada: doan



Miriam Moñux eta Leire Ugarte

Miriam Moñux eta Leire Ugarte bergararrek emanaldi bana egingo dute. Bergarako Musika Eskolan hasi zituzten ikasketak eta Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioan jarraitu zituzten; Leirek pianoa eta Miriamek biolina. Gaur egun Musikenen ikasten dute: Leirek pedagogia musikala eta Miriamek biolina. Orkestratan, kontserbatorioko proiektutan, ganbera-musikatan... ere aritzen dira. Lehenengo, Ugartek piano solistarentzat diren Beethoven, Chopin eta Brittenen hiru obra interpretatuko ditu. Ondoren, Moñuxek biolinerako Chaminade, Espagnole eta Sarasateren lau obra interpretatuko ditu.

Miriam Moñux y Leire Ugarte, ambas de Bergara, ofrecerán sendos conciertos. Ambas realizaron sus estudios en Bergarako Musika Eskola y posteriormente continuaron en el Conservatorio Francisco Escudero. Actualmente se están formando en pedagogía musical (Leire) y en violín (Miriam) en Musikene. Además, colaboran en proyectos del conservatorio, cámaras y en orquestas.

21**Abendua
Ostirala****Diciembre
Viernes****18:30****Musika / Música**

Sarrera / Entrada: 2€ / 4€

Antolatzailea:
Bergarako Musika Eskola.

Bergarako Musika Eskola

Gabonetako kontzertua

Abenduak 21ean Bergarako Musika Eskolako ikasleek aspalditik klasikoa den kontzertua egingo dute udal pilotalekuan. Honako taldeek egingo dute emankizuna: Orkestra Sinfonikoa, Gazte Banda, Haurren eta Hasiberrien abebatzak, Txistulari taldea, Trikitilari taldea, Dantza taldea eta Suzuki taldea. Talde bakoitzak interpretatuko dituen piezez gain, emanaldiaren bukaeran talde guztiak batera arituko dira agertoki gainean. Emanaldiak ordu eta laurden inguruko iraupena izango du.

El 21 de diciembre se celebrará el concierto de Bergarako Musika Eskola que es desde hace mucho un clásico en Navidades. Participarán los siguientes grupos: Orquesta Sinfónica, Gazte Banda, las corales Infantil y Hasiberriak, grupo de Txistularis, grupo de Trikitilaris, grupo de Danza y Suzuki. Además de las piezas que interpretará cada grupo, al final de la actuación subirán todos y todas las participantes a interpretar una pieza conjunta. La actuación tendrá una duración aproximada de hora y cuarto.

22 Abendua Diciembre
Larunbata Sábado

20:30

Musika / Música

Sarrera / Entrada: 8€



Gabonetako kontzertua

Gabonak sasoi bereziak dira guztiontzat sarritan egoten ez garenontzat batzeko, elkarren berri izateko eta ahal bada kantuan batera egiteko. Testuinguru horretan ezinbestekoa da Gabonetan urtero udal pilotalekuan egiten den kontzertua. Aurten ere Bergarako Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Bergarako Orfeoak eta Orfeoi gazteak eskainiko dute emankizun zoragarri hori. Eta guztia, Musika eskolako laguntzarekin.

Las Navidades son unas fechas especiales para reunirnos con todos aquellos a los que no vemos frecuentemente, para compartir momentos y, a poder ser, cantar juntos. En ese contexto la cita del concierto navideño en el frontón municipal es ineludible. Este año también contaremos con un gran concierto a cargo de Bergarako Musika Banda, la coral Aritzeta, la Orquesta Sinfónica de Bergara, el Orfeón y el Orfeón joven además de la ayuda de la Musika Eskola.

23**Abendua
Igandea****Diciembre
Domingo****18:00****Musika / Música**

Sarrera / Entrada: 3€



Horra, Horra! haur abesbatzen kontzertua

Horra, horra! Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren ekimena da, 2017an sortutakoa. Iaz Eguberriarako erreperitorio berri bat landu zuten herri desberdinetan eskaintzeko. Ikuskizun horretan haur abeslariekin batera, metal laukoteak, jazz hirukoteak eta beste arituko dira.

Are gehiago, ikuskizun hau aktore eta umorista ezagunak diren Aitziber Garmendia eta Iker Galartzak aurkeztuko dituzte, eta ziur azalpen, gertakizun eta kontaera dibertigarriak tartekatuko dituztela. Musika Eskolako ikasleek ere parte hartuko dute.

Horra, horra! es una iniciativa de la Federación de Coros de Gipuzkoa creada en 2017. El pasado año diseñaron un repertorio para Navidad con el objetivo de presentarlo en diversas localidades. Junto a los niños y niñas de los coros, participarán cuartetos de metal, tríos de jazz y otros. Además, este espectáculo será presentado por Aitziber Garmendia e Iker Galartza conocidos actores y humoristas, que añadirán explicaciones y anécdotas al desarrollo del mismo. También participarán alumnos y alumnas de Musika Eskola.

26**Abendua Diciembre
Asteazkena Miércoles****17:00****Haur antzerkia / Teatro infantil**

Sarrera / Entrada: 4€



Lau

3-8 urte bitarteko umeentzat kontakizun musikatua Vivaldiren 'Lau urtaroetan' oinarritutakoa. Musikak natura iradokitzen digu: geografía, klima, usainak, zaratak... Eta gorputza, egoera bakoitzari lotuta doakion emozio eta gertaerei egokituz adierazten da, abentura eta gertakari ezberdinetan murgilduz. Jantzi eta objetuen bitartez, eraldaketa harrigarriak lortzen ditugu, irudimenarekin jostatuz. Txikitxoaren arreta lapurtuko duen sorkuntza bitxi eta dibertigarria, beraien zentzumenak piztu eta etengabe erne mantenduko dituen partaidetza aktiboa bultzatuz.

Relato elaborado a partir de la música y dirigido a niños/as de entre 3 y 8 años, basado en las '4 estaciones' de Vivaldi. La música nos acerca a la naturaleza: geografía, clima, olores, ruidos... Y el cuerpo se manifiesta adaptándose a las emociones que les suscita cada aventura, cada nueva situación. A través de disfraces y objetos, jugando con la imaginación, se consiguen grandes transformaciones. Pequeña y divertida creación que atrapa la atención de los más pequeños y aviva sus sentidos promoviendo una participación activa.

27**Abendua
Osteguna****Diciembre
Jueves****17:00****Haur antzerkia / Teatro infantil**

Sarrera / Entrada: 4€



KIBUBU

Xebasek eta Cocok bikote artistikoa osatzen dute, biak dira pailazo. Baina ilusioa gainezka badute ere, oraindik ez dute esperotako arrakasta lortu. Halako batean Xebasek egiazko gorila bat, hezur-haragizkoa, erostea erabakiko du. Sinistuta dago gorila mendean hartu eta trukoak erakutsiz gero, sekulako txalo zaparrada jasoko duela. Baina gorila ez da izango egunen joanean gehien ikasiko duena; izan ere, Xebasek eta Cocok inoiz ahaztuko ez duten ikasgaia ikasiko dute.

Xebas y Cocó forman una pareja artística de payasos con más ilusión que éxito. Xebas decide introducir un elemento en su nuevo espectáculo para conseguir el éxito: un gorila de verdad. Está convencido de que si le enseña los diferentes números, obtendrán el aplauso unánime del público. Sin embargo, no es tanto el gorila quién va a aprender de esta experiencia; Xebas y Cocó van a aprender una lección que jamás olvidarán.

28**Abendua
Osteguna****Diciembre
Jueves****17:00****Haur antzerkia / Teatro infantil**

Sarrera / Entrada: 4€

Kontakatillu



'Katillukadak'

Mikel Ibarzabal bergarra eta Aitor Ormaetxea dira ikuskizunaren sortzaile, aktore eta teknikariak; eta 'Katillukadak' txotxongiloak maneiatzeko bost teknika desberdin erakusten dituen antzezlan zoragarria. Katillu bertsolari ohia da, azken urteotan herriz herri ipuinak kontatzen dabilena; bera da sukaldari, teknikari, orain dantzari... eta zeregin horiek guztiak egin artean hainbat eta hainbat ipuin batzen dituen bere istorioa kontatzen du.

Mikel Ibarzabal de Bergara y Aitor Ormaetxea son los creadores, actores y técnicos de 'Katillukadak', una maravillosa obra que aúna y muestra cinco técnicas diferentes de manipulación de títeres. Katilu fue durante largo tiempo bertsolari y en estos últimos años recorre los pueblos contando cuentos. Él es cocinero, técnico, dantzari... y mientras desempeña todas estas funciones cuenta su historia formada por un montón de cuentos.



S E M I N A R I X O A

KULTURA PROGRAMAZIOA

2018 BERGARA

MUSIKA

DANTZA

ANTZERKIA

HAURRENTZAT EMANALDIAK



Begarako
Udala

